## EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

## 3386

EBAZPENA, 2006ko maiatzaren 11koa, Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena. Horren bidez, UPV/EHUren Ekitaldi Nagusi, Ohore eta Protokoloetarako Arautegia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzen da.

UPV/EHUren estatutuen 258. artikuluak, 1. puntuaren f) letran adierazten duenez, idazkari nagusiari ematen dio UPV/EHUren ekitaldi ofizialen antolamenduaz arduratzeko eta protokoloa betearazteko ardura.

Aspaldiko protokolo honek bazuen erregulatze partzial bat Gobernu Batzarraren eta berorren jarraitzailearen (behin-behineko Gobernu Batzarra) hainbat erabakitan barreiaturik. Hala ere, erregulatze horrek usadio eta ohiturekin, gehien bat, zuen zerikusirik, eta ekitaldi akademiko nagusi bakoitzaren zeremonialaren erredakzioan zehazten zen.

Prozedura horiek guztiak toki bakarrean bildu eta jardute printzipio berak bultzatu nahirik, UPV/EHUko Gobernu Batzarrak, 2006ko maiatzaren 10eko bileran, UPV/EHUren Ekitaldi Nagusi, Ohore eta Protokoloetarako Arautegia onartzea erabaki zuen, eranskinean jasotako moduan.

Azkenik, UPV/EHUren estatutuen 258.1.d) artikuluak dio idazkari nagusiak bermatu behar duela UPV/EHUren erabaki guztiak argitaratzea, eta gauza bera agintzen du Euskal Unibertsitate Sistemaren Legeak (otsailaren 25eko 3/2004 Legea).

Hori guztia kontuan hartuta,

ERABAKI DUT:

***Lehenengoa.–*** Agindua ematea UPV/EHUren Ekitaldi Nagusi, Ohore eta Protokoloetarako Arautegia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin, eranskinean ageri den moduan.

***Bigarrena.–*** Arautegi hau argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

***Hirugarrena.–*** Ebazpen hau irmoa da, eta haren kontra aukerako berraztertze errekurtsoa bakarrik aurkez dakioke, hilabeteko epean, Ebazpen hau eman zuen organo berberari. Edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, administrazioarekiko auzietako Bilboko epaitegien aurrean, bi hilabeteko epean.

Leioa, 2006ko maiatzaren 11.

Idazkari nagusia.
IÑAKI ESPARZA LEIBAR.

## UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

## 3386

RESOLUCIÓN de 11 de mayo de 2006, del Secretario General de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se ordena la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco del Reglamento de Actos Solemnes, Honores y Protocolo de la UPV/EHU.

El artículo 258 de los Estatutos de la UPV/EHU, en su punto 1 letra f), encomienda al Secretario o a la Secretaria General, cuidar de la organización de los actos solemnes de la UPV/EHU y del cumplimiento del Protocolo.

Este protocolo, de origen inmemorial, contaba con una regulación parcial diseminada en diversos acuerdos de la Junta de Gobierno y de su sucesor, el Consejo de Gobierno provisional, si bien mayoritariamente se circunscribía a los usos y costumbres, que se explicitaban en la redacción del Ceremonial de cada concreto acto académico solemne.

Con la intención de recoger en un único cuerpo todos estos procedimientos y de dotarles a todos de unos mismos principios de actuación, el Consejo de Gobierno de la UPV/EHU, en su sesión de 10 de mayo de 2006, decidió aprobar el Reglamento de Actos Solemnes, Honores y Protocolo de la UPV/EHU, en los términos recogidos en el anexo.

Por último, el artículo 258.1 de los Estatutos de la UPV/EHU en su apartado d), encomienda al Secretario General garantizar la publicidad de todos los acuerdos de la UPV/EHU, y así también se establece en la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco.

Por todo ello,

RESUELVO:

***Primero.–*** Ordenar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco del Reglamento de Actos Solemnes, Honores y Protocolo de la UPV/EHU, según lo dispuesto en el anexo.

***Segundo.–*** Este Reglamento entrará en vigor el día siguiente a su publicación.

***Tercero.–*** Esta Resolución por ser firme, pone fin a la vía administrativa y contra la misma sólo se podrá interponer recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes, ante el mismo órgano que la dictó o recurso contencioso-administrativo ante los Tribunales de lo Contencioso de Bilbao en el plazo de dos meses.

Leioa, a 11 de mayo de 2006.

El Secretario General,
IÑAKI ESPARZA LEIBAR.

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN EKITALDI NAGUSI, OHORE ETA PROTOKOLOETARAKO ARAUTEGIA

ATARIKOA

Arautegi honek Euskal Herriko Unibertsitatearen ekitaldi nagusiak, ohoreak eta sariak arautu nahi ditu.

Ikasturteari hasiera emateko tradiziozko ekitaldi nagusia ez ezik, beste hauek ere arautzen dira: doktore berriak izendatzekoa, doktoregoko sari bereziak ematekoa, honoris causa doktoreak izendatzekoa eta unibertsitatearen urrezko domina jartzekoa.

Akademi ekitaldiak gauzatzeko, kontuan hartu beharreko oinarrizko alderdiak jasotzen dira (lehentasunak, zeremoniala, egitura): ekitaldia zer-nolakoa den, Unibertsitateei buruzko Lege Organikoan duen eskumen maila eta egungo garaietara egokitutako unibertsitate tradizioak.

Orobat, forman eta protokoloan eduki handia duten akademi ekitaldiak erregulatzen dira, labur bada ere, beste unibertsitate egiturek antolatuak direnean.

Azkenik, EHUk ematen dituen sari eta ohoreak arautzen dira: honoris causa doktoregoa, unibertsitatearen dominak eta intsigniak, mezenasak eta unibertsitatearen beste aitorpen batzuk, baita horien galtzea ere.

Horrenbestez, EHUren estatutuen 129., 248., 252. eta 258.1.f artikuluetan ezarritakoa garatu nahian, EHUren ekitaldi nagusi, ohore eta protokoloetarako arautegi hau onartzen da.

AURRETIKO TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

***1. artikulua.***– Unibertsitate osoaren akademi ekitaldi nagusiak.

1.– Honako hauek jotzen dira unibertsitate osoaren akademi ekitaldi nagusitzat: ikasturteari hasiera ematekoa, unibertsitateko doktore berriak izendatzeko ekitaldi ofiziala, honoris kausa doktoreak izendatzekoa, EHUren urrezko domina jartzekoa. Baita Zuzendaritza Kontseiluak erabakitzen dituenak ere, aldi jakin baterako direnean, edo Gobernu Kontseiluak erabakitakoak, aldi iraunkor baterako izateko asmoz ezarri direnean. Unibertsitate osoaren akademi ekitaldi nagusietan toki nabarmena hartuko dute EHUren armarri ofizialak eta unibertsitate titulazioen banderek.

REGLAMENTO DE ACTOS SOLEMNES, HONORES Y PROTOCOLO DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

PREÁMBULO

Esta normativa pretende regular los actos solemnes de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, así como los honores y distinciones de la UPV/EHU.

Junto con el tradicional acto solemne de apertura de curso, se regula también la investidura de nuevos doctores y nuevas doctoras de la Universidad y entrega de premios extraordinarios de doctorado, los actos de investidura de doctorados Honoris Causa y de imposición de la Medalla de Oro de la Universidad.

Se recogen los aspectos básicos del régimen de celebración de los actos académicos (precedencias, ceremonial, estructura), teniendo presente la naturaleza del acto, la configuración competencial plasmada en la legislación vigente y las tradiciones universitarias adaptadas a los tiempos actuales.

También, se hace una breve regulación de aquellos otros actos académicos con alto contenido formal y protocolario organizados por las demás estructuras universitarias.

Por último, se regula la concesión de distinciones y honores de la UPV/EHU: doctorado Honoris Causa, medallas e insignias de la Universidad, «Mecenas» y otros reconocimientos universitarios, así como la pérdida de los mismos.

Por tanto, en desarrollo de lo dispuesto en los artículos 129, 248, 252 y 258.1.f de los Estatutos de la UPV/EHU se aprueba el siguiente Reglamento de Actos Solemnes, Honores y Protocolo de la UPV/EHU.

TÍTULO PRELIMINAR

DISPOSICIONES GENERALES

***Artículo 1.***– Actos académicos solemnes de toda la Universidad.

1.– Tienen la consideración de Acto académico solemne de toda la Universidad la celebración de la Apertura de Curso, el Acto oficial de investidura de nuevas y nuevos doctores de la Universidad, la Ceremonia de investidura de doctorados Honoris Causa y el Acto de imposición de la Medalla de Oro de la UPV/EHU. También se considerarán Actos académicos solemnes de toda la Universidad aquellos otros que determine el Consejo de Dirección, si tienen un carácter puntual, o el Consejo de Gobierno si se establecen con vocación de continuidad. En los Actos académicos solemnes de toda la Universidad ocuparán un lugar destacado el Escudo oficial de la UPV/EHU y las banderas de las titulaciones universitarias.

2.– Idazkaritza Nagusiari dagokio unibertsitate osoaren akademi ekitaldi nagusien protokoloa antolatzea, betiere errektorearen kabinetearekin batera lanean. Idazkaritza Nagusiak eratu eta itxi egingo du, behar besteko denboraz, akademi ekitaldi bakoitzaren behin betiko protokoloa. Idazkaritza Nagusiak aholkuak emango ditu, halakorik eskatuko balitzaio, gainerako akademi ekitaldien protokoloa antolatzeko.

3.– Euskal Herriko Unibertsitateak ospakizunari dagozkion duintasuna eta zehaztasuna zainduko ditu, batik bat, akademi ekitaldi nagusiak antolatzerakoan.

*2. artikulua.–* Akademi agintariak eta unibertsitate agintariak.

1.– Hona zein jotzen diren akademi agintaritzat zeremonialari begira: errektorea, errektore ohiak, errektoreordeak eta idazkari nagusia, fakultateetako dekanoak, eskoletako zuzendariak eta sailetako eta unibertsitateko ikerketa institutuetako zuzendariak.

2.– Honako hauek jotzen dira unibertsitate agintaritzat, zeremonialari begira: Gizarte Kontseiluko lehendakaria eta berorren idazkari nagusia, Gizarte Kontseiluko eta Gobernu Kontseiluko kontseilariak, aldezlea eta gerentea.

LEHEN TITULUA

UNIBERTSITATEAREN EKITALDI NAGUSIAK

LEHEN KAPITULUA
LEHENTASUNAK

*3. artikulua.–* Eremua eta mugak.

Titulu honetan ekitaldietarako, akademi kargudun eta agintarientzat, xedatutako lehentasunen erregimenak ez du berez inolako ohore edo hierarkiarik ezarriko, ezta, aipatutako eremuaz kanpo, lege-arauek onartuta edo esleituta dituzten maila, eskumen edo zereginetan aldaketarik ekarriko ere.

*4. artikulua.–* Presidentzia.

Estatutuen 248. artikuluak dioenarekin bat etorrita, errektorea bera edo berorren ordezkari gisa joaten dena izango da akademi ekitaldietako buru, ekitaldiak non egiten diren kontuan hartu gabe. Halere, buru izateko eginkizuna ekitaldian egon eta ohore hori izateko baldintzak betetzen dituen pertsonaren esku ere utz lezake. Eskuarki, campuseko errektoreordea izango da errektorearen ordezkari haren campusean, errektoreak beste norbaiten esku utzi ezean.

2.– La organización protocolaria de los Actos académicos solemnes de toda la Universidad corresponde a la Secretaría General en colaboración con el Gabinete del Rector o Rectora. El protocolo de cada acto académico quedará definitivamente configurado y cerrado por la Secretaría General con la debida antelación. La Secretaría General prestará asesoramiento cuando así se le requiera para la organización protocolaria de los restantes actos académicos.

3.– La Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea cuidará especialmente la dignidad y el rigor propios de su solemnidad en la organización de los actos académicos.

*Artículo 2.–* Autoridades Académicas y Autoridades Universitarias.

1.– A efectos de ceremonial se consideran autoridades académicas, el Rector o Rectora, los antiguos y antiguas Rectoras, los Vicerrectores y Vicerrectoras y el Secretario o Secretaria General, las Decanas y Decanos de las Facultades, los Directores y Directoras de las Escuelas y los Directores y Directoras de los Departamentos y de los Institutos Universitarios de Investigación.

2.– Son autoridades universitarias, a efectos del ceremonial, el Presidente o la Presidenta del Consejo Social y su Secretaria o Secretario General, las Consejeras y Consejeros tanto del Consejo Social como del Consejo de Gobierno de la Universidad, el o la Aldezle y la o el Gerente.

TÍTULO PRIMERO

DE LOS ACTOS SOLEMNES UNIVERSITARIOS

CAPÍTULO I
DE LAS PRECEDENCIAS

*Artículo 3.–* Alcance y límites.

El régimen de precedencias de los cargos académicos y autoridades establecido en el presente Título para las celebraciones no determinará por sí mismo honor o jerarquía, ni implicará, fuera de aquel ámbito, modificación del propio rango, competencia o funciones reconocidas o atribuidas legal o reglamentariamente.

*Artículo 4.–* Presidencia.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 248 de los Estatutos, el Rector o Rectora, o la persona que asuma su representación, presidirá aquellos actos académicos a los que asista, con independencia del lugar en que se celebren, salvo que decida ceder la presidencia a alguna de las personas participantes en el acto en quien concurran circunstancias acreedoras de este honor. Con carácter general y salvo delegación rectoral expresa, el Vicerrector o Vicerrectora de Campus representará al Rector o Rectora en su respectivo Campus.

*5. artikulua.–* Mahaiko presidentzia.

1.– Antolamendu arrazoiek justifikatzen duten salbuespenezko kasuetan izan ezik, akademi ekitaldi nagusietako mahaiko presidentzia kide kopuru bakoitiaz osatuko da. Erdiko tokia presidentziak beteko du, eta gainerako kideak, berriz, presidentziaren ezker eta eskuinean jarriko dira, lehentasunaren arabera.

2.– Mahaiko presidentzia, aldi berean, unibertsitateko kideek eta unibertsitateaz kanpoko kideek osaturik dagoenean, presidentzia tartekatu bikoitza antola daiteke, hau da, bi lehentasun lerro eratu daitezke, presidentziaren ezkerrean eta eskuinean, batean unibertsitateko kideak jarriko dira, eta bestean unibertsitateaz kanpokoak.

3.– Unibertsitatearen tradizioari jarraituta, idazkari nagusia akademi ekitaldi nagusietako mahaiko presidentziaren ezker muturrean jarriko da. Nolanahi ere, lehentasun handiagoa ere izan lezake, arautegi honek jasotzen duenez.

*6. artikulua.–* Akademi agintari eta unibertsitate agintarien arteko lehentasunak.

1.– Lehentasun hau ezartzen da EHUko akademi agintari eta unibertsitate agintarien artean:

1) Errektorea.

2) Gizarte Kontseiluko lehendakaria eta errektore ohiak.

3) Idazkari nagusia.

4) Zuzendaritza Kontseiluko kideak, lehentasun handiagoa izango du, baina, ekitaldi nagusia egiten den campuseko errektoreordeak.

5) Aldezlea.

6) EHUk izendatutako «honoris causa» doktoreak eta errektoreorde mailaren pareko beste akademi kargu batzuk.

7) Ikastegietako dekanoak, zuzendariak eta horien pareko karguak.

8) Unibertsitateko Gobernu Kontseiluko eta Gizarte Kontseiluko kideak.

9) Unibertsitateko ikerketa institutuetako zuzendariak eta sailetako zuzendariak eta pareko karguak.

10) Ikastegi, sail, institutu, ikastetxe nagusietako eta unibertsitateko beste egitura batzuetako gainerako akademi karguak.

2.– Aurreko xedapenak aplikatuta ere, lehentasunen hurrenkeran berdintze bat gertatuz gero, ordena irizpide hauen arabera ezarriko da:

a) Akademi agintariek izango dute lehentasuna, unibertsitate agintarien aldean.

b) Akademi agintarien hurrenkerarako irizpideak urrats hauek betez ezarriko dira: karguan duen antzi-

*Artículo 5.–* La mesa presidencial.

1.– Salvo excepción justificada por razones de organización, la mesa presidencial de los actos académicos solemnes tendrá un número impar de componentes, ocupando su centro la presidencia y situando al resto de ocupantes a derecha e izquierda de la misma de acuerdo con su correspondiente precedencia.

2.– Cuando la mesa presidencial esté compuesta simultáneamente por miembros de la comunidad universitaria y por personas ajenas a la Universidad, podrá organizarse una presidencia intercalada doble, esto es, formando dos líneas distintas de precedencia a izquierda y derecha de la presidencia, ocupando una de ellas las personas pertenecientes a la comunidad universitaria y la otra las participantes ajenas a la misma.

3.– De acuerdo con la tradición universitaria, la o el Secretario General ocupará el extremo izquierdo de la mesa presidencial de los actos académicos solemnes salvo que, según lo dispuesto en este Reglamento, le corresponda mayor prelación.

*Artículo 6.–* Precedencia entre cargos académicos y universitarios.

1.– Se establece la siguiente precedencia entre cargos académicos y universitarios de la UPV/EHU:

1) El Rector o Rectora.

2) El Presidente o Presidenta del Consejo Social y los antiguos y antiguas Rectoras.

3) El Secretario o Secretaria General.

4) Las y los miembros del Consejo de Dirección, con prioridad, para el Vicerrector o Vicerrectora del Campus en que se celebre el acto solemne.

5) El o la Aldezle.

6) Los Doctores y Doctoras honoris causa por la UPV/EHU y otros cargos académicos asimilados al rango de Vicerrector.

7) Las Decanas, Decanos, Directores y Directoras de Centro y cargos asimilados.

8) Las y los miembros del Consejo de Gobierno y del Consejo Social de la Universidad.

9) Las Directoras y Directores de Instituto Universitario de Investigación y los Directores y Directoras de Departamento y cargos asimilados.

10) Los demás cargos académicos correspondientes a los Centros, Departamentos, Institutos, Colegios Mayores y otras estructuras universitarias.

2.– Si aplicando las disposiciones previas, se mantuviera la concurrencia en el orden de precedencias, éste se establecerá con base en los siguientes criterios:

a) Precederán las autoridades académicas a las universitarias.

b) Los criterios de ordenación entre las autoridades académicas serán por este orden: la antigüedad en el car-

natasuna, akademi kategoria eta kategoria horretan igarotako denbora.

3.– Unibertsitateko ikasle guztien ordezkaria denez, EHUko ikasleen Kontseiluko lehendakariak toki nabarmen eta ohorezko bat beteko du antolatzen diren ekitaldi nagusietan. Berdin gertatuko da langileen batzar eta enpresa batzordeetako buruekin.

4.– Beste unibertsitate batzuen ordezkari gisa joaten diren errektoreak aurreko ataleko 2. puntuan aipatutako akademi eta unibertsitate kargudunen artean jarriko dira. Beste unibertsitate batzuen ordezkari gisa joaten diren gainerako pertsonek toki nabarmena izango dute unibertsitateko kideen artean.

7. ***artikulua.***– Unibertsitateko kideak ez direnen esku-hartzea.

1.– Idazkaritza Nagusiak lagunduko ditu akademi eta unibertsitate agintariak, unibertsitate osoaren ekitaldi nagusietara modu ofizialean joaten direnean, eta haien mailaren eta duintasunaren araberako toki bat gordeko die. Oro har, antolamenduaren baldintza bereziek beste toki batean jartzea justifikatu ezean, Presidentziaren ezkerrean jarriko dira.

2.– Aplika dakizkiekeen xedapenekin bat etorrita ezarriko da EHU osoaren akademi ekitaldi nagusietan parte hartzen duten agintari eta pertsona ospetsuen arteko lehentasun hurrenkera.

3.– Pertsona bat ekitaldi batera hark duen baino kargu handiagoko baten ordezkari gisa joaten denean, ez du izango ordezkatzen duen agintariaren lehentasunaz baliatzerik, eta, ondorioz, bere mailari dagokion tokia beteko du.

## II. KAPITULUA
## ZEREMONIALARI APLIKATZEKOAK DIREN GAI OROKORRAK

*8. **artikulua.***– Jarraigoa.

1.– Akademi jarraigoa da unibertsitatearen ordezkaritza instituzionala, eta ekitaldi nagusia egingo den aretora sartzeko eratzen da.

2.– Akademi jarraigoaren buru joango da doktoreen akademi segizioa, hirugarren xedapen gehigarriak ezartzen duen bezala. Idazkaritza Nagusiak zehaztuko du zeinek osatuko duten, EHUren protokolo tradizioari jarraituta.

3.– Akademi segizioaren atzean Idazkaritza Nagusiak zehaztuko dituen agintari akademikoak eta ez-akademikoak jarriko dira, ekitaldiaren antolamenduak agintzen duena betez.

go, la categoría académica y la antigüedad en la misma.

3.– El Presidente o la Presidenta del Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU dispondrá de un lugar destacado, en su condición de representante del conjunto de estudiantes de la Universidad. Lo mismo se aplicará a los Presidentes y Presidentas de las Juntas de Personal y Comités de empresa.

4.– Los Rectores y Rectoras que representen a otras universidades se integrarán entre los cargos académicos y universitarios mencionados en el punto 2 del apartado anterior. Las demás personas que representen a otras universidades se integrarán en un lugar destacado entre la comunidad universitaria.

***Artículo** 7.*– Participación de autoridades que no pertenezcan a la comunidad universitaria.

1.– La asistencia oficial a los actos solemnes de toda la Universidad de autoridades no académicas ni universitarias será atendida por Secretaría General, reservándoles un lugar acorde con su rango y dignidad. Con carácter general, se colocarán a la izquierda de la presidencia salvo que las circunstancias especiales de organización del acto justifiquen la asignación de un lugar distinto.

2.– El orden de prelación entre autoridades y personalidades que participen en los actos académicos solemnes de toda la UPV/EHU se establecerá conforme a las disposiciones que les sean de aplicación.

3.– La persona que represente en su cargo a una autoridad superior a la de su propio rango no gozará de la precedencia reconocida a la autoridad que representa y ocupará el lugar que le corresponda por su propio rango.

## CAPÍTULO II
## DE LAS CUESTIONES GENERALES APLICABLES AL CEREMONIAL

***Artículo** 8.*– De la Comitiva.

1.– La Comitiva académica es la representación institucional de la Universidad, que se constituye para acceder a la sala en la que se celebra la solemnidad académica de que se trate.

2.– Abrirá la Comitiva académica el Cortejo académico de doctores y doctoras, ordenado según se relaciona en la Disposición Adicional Tercera. La Secretaría General determinará quiénes lo constituyen, siguiendo la tradición protocolaria de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

3.– Tras el Cortejo académico, se colocarán las autoridades académicas y no académicas que determine la Secretaría General conforme corresponda a la organización del acto.

4.– Segizioan joateko, jantzi akademikoa eraman beharko dute EHUko kideek akademi ekitaldi nagusietan.

*9. artikulua.–* Unibertsitatearen ereserkia.

Euskal Herriko Unibertsitateak, Europako unibertsitate gehienen antzera, «Gaudeamus igitur» konposizio ezaguna hautatzen du unibertsitatearentzako ereserkitzat. Abesbatzaren jardunean, gutxienez, latinezko jatorrizko bertsioaren lehen bi ahapaldiak eta laugarrena kantatuko dira, II. eranskineko testuan jasotzen den bezala.

*10. artikulua.–* Jantzi akademikoa.

1.– Hauek dira jantzi akademikoa osatuko dutenak, I.1 eranskinean jasota dauden ezaugarriak beterik: toga, togagaina, eskumuturreko parpaila, birretea eta eskularru zuriak.

2.– Horietaz gainera, EHUko errektoreak unibertsitatearen urrezko domina eta makila ere eramango ditu, I.2 eranskinean jasota dauden ezaugarriak kontuan harturik.

## III. KAPITULUA
## UNIBERTSITATE OSOAREN AKADEMI EKITALDI NAGUSIEN EGITURA

*11. artikulua.–* Xedapen orokorra.

1.– Arau orokor gisa, unibertsitate osoaren akademi ekitaldi nagusiak urrats hauei jarraituz egingo dira:

a) Akademi jarraigoa sartuko da ekitaldi aretoan, II. kapituluak jasotzen duen bezala antolaturik.

b) Presidentziak emango dio hasiera ekitaldiari.

c) Akademi ekitaldiaren berariazko jarduna.

d) Ekitaldiaren amaiera.

e) Unibertsitatearen ereserkiaren interpretazioa.

f) Akademi jarraigoa aterako da aretotik.

2.– Akademi ekitaldiburu erroktorea ez beste norbait denean, lehenago jarritako urratsak baldintza horretara egokitu beharko dira, bai eta hizlarien hurrenkera aldatu ere.

3.– Estatutuen 258.1 artikuluak ematen duen eskumena erabilita, Idazkaritza Nagusiari dagokio unibertsitate osoaren ekitaldi nagusien protokoloa zehaztea eta prestatzea. Hainbat ekitaldi batera izanez gero, protokoloa baldintza horietara egokitu beharko da.

4.– Dolu egoeretako akademi ekitaldi nagusietan, Idazkaritza Nagusiak protokoloa egokitu beharko du,

4.– Para formar parte del Cortejo, en los actos académicos solemnes los miembros de la comunidad académica de la UPV/EHU utilizarán el traje académico.

*Artículo 9.–* Del himno universitario.

La Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, al igual que la mayoría de las Universidades europeas, adopta como himno universitario la composición conocida como «Gaudeamus igitur». En su interpretación coral se cantarán, al menos, las dos primeras y la cuarta de sus estrofas en su versión original en latín con arreglo al texto recogido en el anexo II.

*Artículo 10.–* Del Traje académico.

1.– El Traje académico se compondrá de la toga, la muceta, las puñetas o vuelillos, el birrete y los guantes blancos, conforme a las características del anexo I.1.

2.– El Rector o Rectora de la UPV/EHU llevará además, la Medalla de la Universidad y la Makila, conforme a las características del anexo I.2.

## CAPÍTULO III
## DE LA ESTRUCTURA DE LOS ACTOS ACADÉMICOS SOLEMNES DE TODA LA UNIVERSIDAD

*Artículo 11.–* Disposición general.

1.– Como regla general, el desarrollo de los Actos académicos solemnes de toda la Universidad tendrá lugar de acuerdo con la siguiente secuencia:

a) Entrada de la Comitiva académica en el correspondiente salón de actos, organizada según contempla el Capítulo II.

b) Apertura de la sesión a cargo de la Presidencia.

c) Desarrollo del contenido específico del acto académico.

d) Clausura de la sesión.

e) Interpretación del himno universitario.

f) Abandono del salón de actos por la Comitiva académica.

2.– Cuando el acto académico sea presidido por persona distinta del Rector o Rectora, la secuencia prevista para el mismo se adecuará a esta circunstancia, alterándose oportunamente el orden de intervenciones.

3.– En ejercicio de la competencia atribuida en el artículo 258.1 de los Estatutos, la determinación y elaboración del Protocolo de los Actos solemnes de toda la Universidad corresponde a la Secretaría General. En caso de celebración de varios Actos en una misma sesión se acomodará el Protocolo a las circunstancias que concurran.

4.– En los Actos académicos solemnes celebrados en situaciones de duelo, la Secretaría General adaptará el

egoera horiei ez dagozkien alderdiak baztertze aldera.

1. ATALA
IKASTURTEAREN HASIERA

*12. artikulua.–* Ospakizuna.

Kurtso hasieran egingo da ikasturteari hasiera emateko ekitaldia. Txandaka antolatuko da unibertsitatea estatutuen bidez egituratuta dagoen campusetako bakoitzean.

*13. artikulua.–* Ekitaldiaren berariazko edukia.

1.– Ikasturteari hasiera emateko ekitaldian honakoak sartuko dira:

a) EHUko idazkari nagusiak aurreko ikasturteko txostenaren laburpena irakurriko du.

b) Ikasturtearen hasierako ikasgaia.

c) Errektorearen hitzaldia.

2.– Arau orokor gisa, hasierako ikasgaia errektoreak izendatzen duen doktoreak emango du, eta, lehenik eta behin, ekitaldia antolatu den campuseko doktoreen artetik aukeratzen saiatuko da.

2. ATALA
DOKTOREAK IZENDATZEA
ETA DOKTOREGOKO SARI BEREZIAK
EMATEA

*14. artikulua.–* Ospakizuna.

Unibertsitateko doktoreak izendatzeko akademi ekitaldia, gradu hori aurreko ikasturtean lortu dutenen kasuan, urtero antolatuko da Zuzendaritza Kontseiluak zehazten duen egunean, eta, lehenik eta behin, EHUren instalazioetan izan dadin saiatuko da. Ekitaldi horretan bertan emango dira doktoregoko sari bereziak.

*15. artikulua.–* Ekitaldiaren berariazko edukia.

1.– Doktoreak izendatzeko ekitaldian honakoak sartuko dira:

a) Akademi Antolakuntzako eta Doktoregoko Batzordeko buruak irakurriko du EHUko doktoregoari buruzko txostena, eta aipamen berezia egingo du doktoregoko sari berezia jaso duten pertsonei buruz.

b) Birreteen jartzea eta zin egitea edo promesa egitea.

c) Errektorearen hitzaldia.

2.– Ekitaldira joango direla baietsi duten doktoreen birreteen jartzea hurrenkera alfabetikoz egingo da, jakintza arlo bakoitzaren barruan eta titulazioetarako hi-

Protocolo con objeto de evitar aquellos elementos generalmente previstos que no resulten acordes a la situación.

SECCIÓN 1.ª
DE LA APERTURA DE CURSO

*Artículo 12.–* Celebración.

A comienzo de curso tendrá lugar el solemne Acto de apertura que, con carácter general, se celebrará de modo rotatorio en cada uno de los Campus en los que la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea está estructurada estatutariamente.

*Artículo 13.–* Contenido específico del acto.

1.– El Acto de apertura de Curso incluirá, de manera específica:

a) La lectura, por el Secretario o Secretaria General de la UPV/EHU, de un resumen de la memoria del Curso anterior.

b) La lección inaugural del Curso.

c) El discurso del Rector o Rectora.

2.– Con carácter general, la lección inaugural será dictada por el Doctor o Doctora que designe el Rector o Rectora, en principio, de entre quienes impartan docencia en el Campus en que se celebre el Acto.

SECCIÓN 2.ª
DE LA INVESTIDURA DE NUEVOS DOCTORES Y NUEVAS
DOCTORAS Y ENTREGA DE PREMIOS
EXTRAORDINARIOS DE DOCTORADO

*Artículo 14.–* Celebración.

El Acto académico solemne de investidura de nuevos doctores y doctoras de la Universidad, que hayan alcanzado este grado en el Curso académico anterior, se celebrará con periodicidad anual en la fecha que determine el Consejo de Dirección, preferentemente en dependencias de la UPV/EHU. En el mismo acto, se procederá a entregar los premios extraordinarios de doctorado.

*Artículo 15.–* Contenido específico del acto.

1.– El Acto de investidura de nuevos doctores y doctoras incluirá, de manera específica:

a) La lectura, en principio por parte de quien presida la Comisión de Ordenación Académica y Doctorado, de un informe sobre el Doctorado en la UPV/EHU, con especial mención de quienes hayan recibido el Premio extraordinario de doctorado.

b) La imposición del Birrete y la toma de juramento o promesa.

c) El discurso del Rector o Rectora.

2.– La imposición del Birrete a los nuevos doctores y doctoras que hayan confirmado su asistencia a la ceremonia será por orden alfabético, dentro de cada cam-

rugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betez. Akademi eta Antolakuntzako Batzordeko doktoreak izango dira aitabitxiak eta amabitxiak. Horiexek irakurriko dute konpromiso formula, bai eta doktore berriei klaustroan eserlekua eskaini ere. Eta, segidan, errektoreak zin egitea edo promesa egitea eskatuko die doktore berriei, ekitaldiaren protokoloan ezarritakoa betez.

3. ATALA
«HONORIS CAUSA» DOKTOREA IZENDATZEA

*16. artikulua.–* Ospakizuna.

1.– Arau orokor gisa, honoris causa doktorea izendatzeko akademi ekitaldia izendapen hori ematea erabaki den ikasturtean egingo da, eta, lehenik eta behin, proposamenaren alde atera den ikastegietako batean egiten saiatuko da.

2.– Honoris causa doktorea izendatzeko ekitaldi nagusiaren eguna jartzerakoan, bat etorriko dira Idazkaritza Nagusia, sustatzailea eta, kasuan kasu, ekitaldia egingo den ikastegiko dekanoa edo zuzendaria.

*17. artikulua.–* Izendatzeko ekitaldiaren berariazko edukia.

1.– Honoris causa doktorea izendatzeko ekitaldian honakoak sartuko dira:

a) Idazkari nagusiak ekitaldian honoris causa doktore izendatuko dituztenei doktorego gradua emateari buruzko akordioa irakurriko du.

b) Doktoregaia ekitaldia egiten ari den aretoan sartuko da, aitabitxiak edo amabitxiak lagunduta eta doktoreen segizioa aurretik duelarik. Sartzearekin batera, abesbatzak Agur Jaunak! kantatuko du.

c) Aitabitxi edo amabitxiaren laudatioa, EHUko honoris causa doktorearen goreneko gradua emateko eskatuz.

d) Doktoregaiaren latinezko zin egitea edo promesa egitea.

e) Errektoreak honoris causa doktorearen titulua emango du.

f) Errektoreak birretea eta domina jarriko ditu.

g) Aitabitxiak edo amabitxiak graduari dagozkion beste atributuak emango ditu: zientziaren eta jakinduriaren liburua, doktore eraztuna eta eskularru zuriak.

h) Anaiarteko besarkada eta irakasle klaustroaren harrera, errektoreak eta aitabitxiak edo amabitxiak ordezkatuta.

po de la Ciencia y siguiendo para las titulaciones lo establecido en la Disposición adicional tercera. Actuarán como padrinos y madrinas las y los doctores integrantes de la Comisión de Ordenación Académica y Doctorado, quienes leerán la fórmula de compromiso y darán asiento en el Claustro a los nuevos doctores y doctoras. A continuación, el Rector o Rectora tomará juramento o promesa a los nuevos doctores y doctoras según se establezca en el Protocolo del Acto.

SECCIÓN 3.ª
DE LA INVESTIDURA DEL DOCTORADO «HONORIS CAUSA»

*Artículo 16.–* Celebración.

1.– Con carácter general, el solemne Acto académico de investidura del doctorado Honoris Causa se celebrará en el curso académico en el que se haya decidido su concesión y, preferentemente, en alguno de los Centros que haya respaldado la propuesta.

2.– La fecha en la que haya de procederse al solemne Acto de investidura del doctorado Honoris Causa será determinada, de común acuerdo, por la Secretaría General, el promotor o promotora y, en su caso, el Decano, Decana, Director o Directora del Centro en el que vaya a tener lugar.

*Artículo 17.–* Contenido específico del Acto de investidura.

1.– La investidura del doctor o doctora Honoris Causa tendrá el siguiente contenido específico:

a) Lectura por el Secretario o Secretaria General del acuerdo por el que se concede el grado de doctorado honoris causa a quien o quienes vayan a ser investidos en la sesión.

b) Entrada del doctorando o doctoranda en el salón en el que se realice el Acto, conducido por su padrino o madrina y precedidos por la Comisión de Doctores y Doctoras. El Coro acompañará la entrada con la interpretación del Agur Jaunak!

c) Laudatio del padrino o madrina, quien concluirá con el ruego de concesión del supremo grado de doctorado Honoris Causa por la UPV/EHU.

d) Juramento o promesa del doctorando o doctoranda, que deberá ser en latín.

e) Entrega por el Rector o Rectora del título de doctor honoris causa.

f) Investidura por el Rector o Rectora con el Birrete y la Medalla.

g) Entrega por el padrino o madrina de los otros atributos del Grado: el Libro de la Ciencia y la Sabiduría, el Anillo doctoral y los Guantes blancos.

h) Abrazo de fraternidad y acogida en el Claustro de profesores, representados en las personas del Rector o Rectora y el padrino o madrina.

i) Ohorezko aurreskua.

j) Doktore berriaren replicatioa edo eskerrona.

k) Errektorearen hitzaldia.

2.– Idazkaritza nagusiak aitabitxi edo amabitxiaren laudatioa eta honoris causa doktorearen replicatioa gordeko ditu. Horiek idatziz aurkeztu beharko dira ekitaldia izan baino lehen, eta horien behar bezalako publizitatea egingo da.

3.– Honoris causa doktore berriek zuhaitz bat landatuko dute, ahal delarik, ekitaldia egiten den EHU-ko campusean.

4. ATALA
URREZKO DOMINA JARTZEA

*18. artikulua.–* Ospakizuna.

Urrezko dominak ekitaldi nagusian jarriko dira.

*19. artikulua.–* Urrezko domina jartzeko ekitaldi nagusiaren berariazko edukia.

Ekitaldian honakoak sartuko dira:

a) Idazkari nagusiak domina emateko akta irakurriko du.

b) Errektoreak urrezko domina jarriko du.

c) Jasotzailearen onarpen hitzaldia.

d) Errektorearen hitzaldia.

IV. KAPITULUA
UNIBERTSITATEAREN BESTE EKITALDI NAGUSI BATZUK

*20. artikulua.–* Ekitaldi motak.

1.– Akademi gertaera garrantzitsuak direla eta, campus, ikastegi, unibertsitateko sail eta unibertsitateko ikerketako institutuek ekitaldi nagusiak antola ditzakete, betiere haien eskumenen barruan.

2.– Zuzendaritza Kontseiluak berariaz erabaki ezean, campus, ikastegi, unibertsitateko sail, unibertsitateko ikerketa institutu eta unibertsitateko gainerako egituren ekitaldi nagusiek ezin dute izan arautegi honetako 1.1 artikuluan zehazten diren unibertsitate osoaren ekitaldi nagusien helburu berbera.

3.– Ahal den neurrian, campus, ikastegi, unibertsitateko sail eta unibertsitateko ikerketa institutuek antolatutako ekitaldi nagusien egiturak 11. artikuluak dioena beteko du, baita titulu honetako lehen bi kapituluen edukia ere.

i) Aurresku de honor.

j) Replicatio, o agradecimiento del nuevo Doctor o Doctora.

k) Discurso del Rector o Rectora.

2.– La Secretaría General conservará la Laudatio del padrino o madrina y la Replicatio del o la doctora «honoris causa», las cuales habrán de ser entregadas por escrito con anterioridad a la celebración de la investidura y a las que se dará una publicidad adecuada.

3.– Los nuevos doctores y doctoras Honoris Causa plantarán un árbol preferentemente en el Campus de la UPV/EHU en que se celebre el Acto.

SECCIÓN 4.ª
DE LA IMPOSICIÓN DE LA MEDALLA DE ORO

*Artículo 18.–* Celebración.

La imposición de las Medallas de Oro tendrá lugar en Acto Solemne.

*Artículo 19.–* Contenido específico del Acto Solemne de imposición de la Medalla de Oro.

El contenido específico del Acto incluirá:

a) Lectura por el Secretario o Secretaria General del acta de concesión de la Medalla.

b) Imposición de la Medalla de Oro por el Rector o Rectora.

c) Discurso de aceptación de la persona que la recibe.

d) Discurso del Rector o Rectora.

CAPÍTULO IV
DE OTROS ACTOS SOLEMNES UNIVERSITARIOS

*Artículo 20.–* Clases de actos.

1.– Los Campus, los Centros Docentes, los Departamentos Universitarios y los Institutos Universitarios de Investigación podrán celebrar, dentro de su ámbito de competencias, sesiones solemnes con motivo de acontecimientos académicos señalados.

2.– Salvo acuerdo expreso del Consejo de Dirección, los Actos solemnes universitarios de los Campus, los Centros Docentes, los Departamentos Universitarios, los Institutos Universitarios de Investigación y demás estructuras universitarias no podrán coincidir en su objeto con los Actos solemnes de toda la Universidad definidos por el artículo 1.1 del presente Reglamento.

3.– En la medida de lo posible, la estructura de los Actos solemnes universitarios organizados por los Campus, los Centros Docentes, los Departamentos Universitarios y los Institutos Universitarios de Investigación respetará lo dispuesto por el artículo 11, así como el contenido de los dos primeros capítulos del presente Título.

*21. artikulua.–* Unibertsitate gradua emateko ekitaldia.

1.– Ikastegiek unibertsitate gradua emateko ekitaldiak antola ditzakete, unibertsitateko ekitaldi nagusitzat joko direnak.

2.– Unibertsitate gradua emateko ekitaldian, titulua aurreko ikasturtean lortu duten ikasleek hartuko dute parte.

3.– Baldin eta errektorea edo campuseko errektoreordea, edo horiek ordezkatzen dituen Zuzendaritza Kontseiluko kidea ez badago, unibertsitate gradua emateko ekitaldiburu dekanoa edo ekitaldia antolatu duen ikastegiko zuzendaria izango da, eta horrek, presidentzia, ekitaldian egon eta ohore hori izateko baldintzak betetzen dituen pertsonaren esku utz lezake.

4.– Dekanotzak edo ikastegiko Zuzendaritzak ezarriko du unibertsitate gradua emateko ekitaldiaren berariazko protokoloa, betiere ekitaldiburu izango den akademi agintariarekin batera lanean.

5.– Artikulu honek xedatutakoa EHUko graduondoko tituluei eta graduondoko berezko tituluei dagozkien diplomak emateko ekitaldiei aplika dakieke, ekitaldiok titulu horiek irakasteko ardura duten unibertsitate egiturek antolatu dituztenean.

*22. artikulua.–* Erretorearen Kabinete eta Prentsa Zerbitzuekiko Koordinazioa.

1.– Errektoreordetza, ikastegi, sail, unibertsitateko ikerketa institutu eta unibertsitateko gainerako egiturek informatu beharko dute errektorearen kabinetea ikasturte hasieran, eta edozein kasutan ere, behar besteko denboraz, ekitaldi nagusiak egiteko asmoaz. Jakinarazpen horretantxe ere adierazi beharko da agintari ez-akademikoak gonbidatzeko asmoa dagoela, errektorearen kabinetearekin koordinatuta egin beharko dena.

2.– Ekitaldi horien berri hedabideetan emango da EHUko Prentsa Zerbitzuarekin koordinatuta.

## II. TITULUA

## SARIAK ETA OHOREAK EMATEKO PROZEDURA

### I. KAPITULUA
### HONORIS CAUSA DOKTOREA

*23. artikulua.–* Proposamena.

1.– EHUko Errektorego, ikastegi, sail eta unibertsitateko ikerketa institutuek egin dezakete honoris causa doktoreak izendatzeko proposamena.

2.– Zuzendaritza Kontseiluak edo kasuan kasuko ikastegi batzarrak edo saileko kontseiluak edo unibertsitateko ikerketa institutuak onetsitako proposamena

*Artículo 21.–* Acto de Graduación Universitaria.

1.– Los Centros podrán organizar Actos de Graduación Universitaria, que tendrá la consideración de Actos solemnes universitarios.

2.– En el Acto de Graduación Universitaria participará el alumnado que haya obtenido la correspondiente Titulación en el curso anterior.

3.– En ausencia del Rector o Rectora o del Vicerrector o Vicerrectora del Campus, o miembro del Consejo de Dirección que les represente, el Acto de Graduación Universitaria será presidido por el Decano, Decana, Director o Directora del Centro organizador del Acto, que podrá ceder la presidencia a alguna de las personas participantes en el Acto en quien concurran circunstancias acreedoras de este honor.

4.– El Protocolo específico del Acto de Graduación Universitaria se fijará por el Decanato o la Dirección del Centro, en coordinación con la autoridad académica que vaya a presidir el Acto.

5.– Lo dispuesto en el presente artículo será también aplicable a los Actos de entrega de Diplomas correspondientes a Títulos de postgrado y Títulos propios de la UPV/EHU organizados por parte de las estructuras universitarias responsables de la impartición de los mismos.

*Artículo 22.–* Coordinación con el Gabinete del Rector y Servicio de Prensa.

1.– Los Vicerrectorados, los Centros, Departamentos, Institutos Universitarios de Investigación y demás estructuras universitarias deberán notificar a comienzo del curso académico o, en cualquier caso, con la suficiente antelación al Gabinete del Rector su previsión de celebración de actos solemnes. En la misma comunicación se deberá incluir su intención de invitar a autoridades no académicas que deberá realizarse en coordinación con el Gabinete del Rector o Rectora.

2.– La difusión social de estos actos se realizará en coordinación con el Servicio de Prensa de la UPV/EHU.

## TÍTULO II

## DEL PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN DE DISTINCIONES Y HONORES

### CAPÍTULO I
### DEL DOCTORADO HONORIS CAUSA

*Artículo 23.–* Iniciativa.

1.– Las iniciativas para la concesión de doctorados Honoris Causa podrán proceder del Rectorado, de los Centros, Departamentos e Institutos Universitarios de Investigación de la UPV/EHU.

2.– La propuesta aprobada por el Consejo de Dirección o por la respectiva Junta de Centro o Consejo de Departamento o Instituto Universitario de Investiga-

EHUko Aholkularien Batzordeari igorriko zaio, urtero, urtarrilaren 1etik apirilaren 30era. Proposamena sail batek edo unibertsitateko ikerketa institutu batek egin duenean, ekitaldia egingo den ikastegi batzarrarekin adostuta egon beharko du.

3.– Ikastegi, sail eta unibertsitateko ikerketa institutuek ezin izango dute proposamen bat baino gehiago egin ikasturte bakoitzeko. Salbuespenezko kasuetan izan ezik, behin proposamena onartuta, proposatu duen ikastegiak, sailak edo unibertsitateko ikerketa institutuak ezin izango du beste proposamen bat egin bi ikasturte igaro arte.

4.– Euskal Herriko Unibertsitateak ezin izango ditu bere kideak, inolaz ere, honoris causa doktore izendatu.

*24. artikulua.–* Proposamenaren edukia.

Proposamenak argi eta garbi jasoko du zein diren izendapena justifikatzen duten bikaintasunaren zioak eta zein EHUri egin zaion ekarpen garrantzitsua. Proposamenarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Hautagaiaren curriculum vitae luzea, honakoak zehazturik: ibilbide akademiko, profesional, kultural edo soziala, haren zientzi ikerlanak edo produkzio artistikoa.

b) Aurreko artikuluan adierazitakoen egiaztagiriak.

c) Hautagai izateko bermerako baliozkoak izan eta Gobernu Kontseiluak erabaki egokia hartzeko aukera eman dezaketen bestelako agiriak.

*25. artikulua.–* Tramitazioa.

1.– Hautagaiak aztertutakoan, EHUko Aholkularien Batzordeak ikasturte horretan aurkeztutakoetatik lehentasunezko proposamen bat egin eta, agiri guztiekin batera, Idazkaritza Nagusiari helaraziko dio, eta azken hori arduratuko da proposamenaren berri emateaz.

